

## “SORGINAK, INKISIZIOA ETA LOPE MARTINEZ ISASTIREN TXOSTENA”

*“Aski! erraiten jakin izan zuten sorgin eta azti guztiei”*

**H**erri bakoitzak, gizarte bakoitzak bere nortasun berezia edukitzeaz gain, baditu ere bere baliabideak nortasun berezi hori gauzatu ahal izateko. Euskal Herriak, oso herri zaharra denez, baditu oso sustrai zahar bezain sakonak, bere kultura berezia, bere berezko kosmogonia osatzeko. Eta sustrai hauek historiaurretik esaten dutenez, orduko garai urrunetara jo beharra daukagu euskaldunon nortasun eta kosmogonia berezia uler ahal izateko.

### 1.- Hastapenetako aztien kasta

Kristoren aurreko 20.000. urte inguruan, Paleolitos Aroaren hastapenetan, gaurkoak baino askoz zabalagoak ziren euskal lurraldeetan, gaur eguneko euskal herriaren aintzindaria zen kromainoide gizakia kokatu zen. Hauxe da behintzat, Joxemiel Barandia-ranen teoriak dioena. Eta azken izoztaro edo glaziazioaren hondarrean zeudenez, leizeetako zuloetan bilatu behar izan zuten babes. Denboraldi luze batez, leizezuloak izan ziren gizatalde haien bizilekua. Eta bertan, ehiza eta emankortasunaren inguruko erritoen egile gisa azti kasta bat sortu zen, leizezuloetako hormetan egindako margoketak, horren lekukorik onenak ditugularik.



*...Eta gure arbasoek jakin izan zuten -askil- esaten.*



Hor, leizezuloetako iluntasun tinkoa argitzen zuen su magikoaren inguruan, eta bere babesleak ziren aztiekin, hasiera eman zitzaion nolabait, gure kosmogonia zaharrari. Kosmogonia honek izadia edo naturaren indarretan sinisten zuen, eta izate osoa ezaugarri jainkotu batez gainezkatzen zuen. Izoztaroa amaitzean, zulo iluneko gizon-emakume haiek lur azalera atera ziren, eguraldi berriaren epeltasunaz lagundurik. Eta honela K.a. 5.000. urte aldean, Neolitos Aroa hasi zen, eta berarekin batera nekazaritza, artzaintza eta laborantza. Garai berriak ziren denentzat, eta baita gizatalde haien bizitza kosmogoniko zuzentzen zuten aztientzat ere. Eta bizimodua arrunt berria zen bezalaxe, honelaxe egokitu behar izan zuten euren bidea garai haietako aztiekin. Bizimodua ez zen, Paleolitos Aroan egin zen bezala, leizezuloetako babesean eratzen, erreka eta aintziren latsetan kokaturiko txaboletan baizik. eta errito magikoak eta kultoa leizezuloetatik kanpo antolatu zen, harriz egindako eraikuntza megalitikoaren inguruan (zutarriak, trikuharriak, jentilbarratzak,...)

Naturaren indarrak ziren kulto horren inguruko osagairik garrantzitsuenak, lehen bezala, baina orain indar (edota astro...) horiei izena ematen zaie, pertsonifikatu egiten dira lehenengo jainkoen irudietan alegia. Esate baterako: Ortzi (osotasuna, zeru zabala,...). Eki (eguzkia), Ilazki (ilargia), Amalur (lurra), Ostots (trumoia), Sugaar (tximista),... K.a. II. mendean, erromatarrekin lehenengo harremanak eduki genituenean, gure aztien kasta guztiz antolaturik zegoen, eta gure sinismenak arrunt finkaturik.

## **2.- Kristau erlijioaren eragina**

Piskanaka piskanaka kristau erlijioa zabaltzen joan zen, eta Erromako enperadoreek erlijio ofizialtzat hartzerakoan, behin betiko bultzada eman zitzaion, inperioko lurralde guztietara hedatu zelarik. Guri dagokigunez, oso berandu kristautu ginela (edo gintuztela agian) esan beharra daukagu. Badirudi Europa mendebalдарreko azkenak izan ginela fede berria hartuz, VIII. edo IX. menderarte, gure kosmogonia zaharrari tinko atxikirik jarraitu baikenuen. Ondoren bi kosmogonien nahasketa eman zen, mende luzeetan iraun zuen nahasketa -agian gaurko egunetaraino ere-. Eta kosmogonia berriaren mesedetan, errito eta sinismen zaharrak itzaltzen, desagertzen, edota esanahiaz aldatzen joan ziren. Lehen "Ortzi" zena, orain "Jaungoikoa" izango da, "Mari" "Ama Birjina" eta abar... Jainkoen edo pertsonaia jainkotuen aldaketarekin batera, naturaren indarren deskralizazioa bultzatuz, "Ostots" trumoia, "Ortzadar" Erromako zubia, eta abar... bihurtuz.

Honela kosmogonien aldaketa eta bilakaera hontan, kasta zaharraren desagertzea ezagutu zen, eta baita apaizez, mojak, eta fraideez osaturiko kasta berriaren finkapena.

## **3.- Sorginen garaiak**

Jesukristoren jatorrizko erlijioak maitasuna, begirunea eta bakea aldarrikatzen zituen arren, Euskal Herrira iritsi zenerako bere mezu osoa ia guztiz galdurik eta geruza gizatiar batez ezkutaturik zegoen. Erdi Aroko garai trixte eta ilunak ziren. Indarkeria eta inkultura fanatikoaren garai ankerra. Eta horixe izan zen guregana ekarri zena. Dena zen iluna, dena pekatua, dena zapalketa gizaturiko kristau erlijio hartan. Eta azkenean Europako



egoera jasangaitza bilakatu zen beheko giza mailekoentzat, eta baita Euskal Herriko nekazal arloko biztanleriaren sektore haundientzat ere. Asko eta askok, apaizen dotrinei uko eginez, aurreko sinismen naturistek zuten, irtenbideak bilatuz. Honela XVI. eta XVIII. mende artean sorgin edo aztien inguruko mugimendu ezantolatu batek Europa osoa murgildu zuen.

Baina zer ziren sorginak? Garaiko nekazal inguruko jendeek kristau kosmogoniak ekarritako soka motzaren zapalketatik ihes egin nahi zuen kontuan izan garai hartan dena nahasturik zegoela: hots, botere erlijiosoak, politikoa eta ekonomikoa eta hortarako kasta eliztarra arbuiatzeaz gain, aurreko kasta zaharra berpiztu beharra zegoen. Eta lortu ez bazuten ere, bai azaldu zirela errito zaharrak zabaltzen eta zuzentzen zituzten pertsonaiak, sorginak alegia.

Euskal Herrian nonnahi eta noiznahi sortu ziren sorginak eta akelarreak (naturaren indarrak pertsonifikatzen zituen akerraren inguruko erritualak). 1.507-1.525 artean, Iturin, Luzaide, Orreaga eta Auritzeko sorginen berri ematen zaigu. 1.539.ean Zeraiztu ibarreko sorginez mintzatzen da. 1.540.ean Amezkokoez, 1.575. eta 1.576.ean Ziordiakoak aipatzen dira. Garai hartan ere ematen zaigu Lapurdiko sorginen berri. 1.576. urtean Larraungo sorginez mintzatzen zaigu. 1.595.ean Aritzeko ibarrekoek, XVI. mendearen bukaeran akelarreen sonaz dakigu, eta abar eta abar eta abar. Gure bailarari dagokionez gogora ditzagun 1.611.urtean eta Jaizkibelen egiten ziren akelarreei buruz, 13 urteko Ixabel Garziaren ahotik jasotako testigantza:

*"...el diablo en gascón llamaba, veni  
aca los de San Sebastián, los del Pasage,  
y luego en vascuence los de Irún,  
los de Hendaya, y les habló en algunas  
palabras..."*

Garaiko botereak (politikariak, erlijiosoak, nobleak,...) ezin izan zuen sorgin fenomenoak jasan, bere boterearen zutabeak zulatzen baitzituen, eta mugimenduarekin bukatu nahian, Inkisizioa edo Ofizio Santua asmatu zuen. Eta berriro borrarroak, odola eta zapalketa betiko interesen mesedetan. Badirudi lehenengoetakò erreketak 1.520. urte inguruan eman zirela, Nafarroan, Luzaide aldeko bailaran zehazkiago esana. Baina benetako



**Sorginak ukendu magikoak prestatzen.  
Zurezko erretauloa (Augsburgo 1508)**



*Irudimenak  
landutako  
sorginak.*



zapalketa Logroñoeko eta Baionako auziekin gertatu zen. 1.610.ean izan zen Logroñoeko Auzia, eta bertara eraman ziren Zugarramurdi aldean harrapatutakoak, 31 lagun guztira. Horietatik sei bizirik erre zituzten (Graziana Barrenetxea, Migel Goiburu, Joanes Goiburu, Maria Iriarte, Maria Txipia Barrenetxea eta Maria Zozaia) eta hamahiru tortura ikaragarrien eraginez hil zituzten.

Hurrengo urtean, De Lancre inkisidore frantsesak gauza bera egin zuen Lapurdin, Baionako Auzia izenez ezagutzen dugunari hasiera emanez. De Lancre eroa, fanatikoa eta sikopata izateaz gain, euskara, euskal kultura eta euskaldunekiko zuen gorrotoak gidaturik hamaika eta hamaika lagun asasinatu zituen ikara Lapurdiko bazter guztietatik zabalduz. Bere ustez, euskaldunok ez ginen ez frantsesak eta ez espainolak -oso azkarra mutila- eta deabruaren hizkuntza den euskaraz mintzatzen garenez, surtara eramateko merezimendu guztien jabe. Pentsatu eta egin, bere paranoia erlijiosoak sarraski haundia eragin baitzuen.

Urte batzuk beranduago, eta herri xehearen arteko izua eta ikara itzali nahian, Gaztelako koroak inkisidore berria izendatu zuen, Campofrío izenekoa, eta hau saiatu zen sorgin eta akelarreen kontuei garrantzia kentzen, eta apaiz integristak ixilarazten, halako gehiegikeriak errepika ez zitezen. Amaitu dezagun Serafin Barojak bildutako bertso zaharrak gogora ekarri:





Hans Baldun Grien (1510)  
Sorginen irudia.  
Sorgina hegaz doa  
aker baten gainean.  
Eta beheko aldean  
ukonduak ari dira  
prestatzen.

## “Larumbata aquelarren”

### I (Coroac)

“¡Larumbata aquelarren! sorguiñ abec  
Larumbateroco batzarra dute,  
¡Larumbata! Aquer aundi bat  
Oi dan becela daucate aguintari”.

### II (Batec)

Bazter gucietatik aquelarrerá  
sorgiñac, lambroan, igotzen dirá!  
anchume gañean batzuec zaldiz  
ta erratza-maquillan besteac berriz  
algara ta irrintzi ta quinquirranean  
elchuac becela jiraca dabiltz.  
Cherri gremiyo bat quirten catean  
tricu cirri-zonotz, zutic bi oñean  
zacurrac chinguca, catu buztan motz  
ta ollar luma gabe, alaran goğoz  
buruz bera asto bi, atzeac goiti  
saltoca, irrintzica, eroac dabiltz.

### III (Beste batec)

Illarguitan dago icusgarria  
sorguiñen batzarra ta cofradia  
guizon gallurdunac lumas jantziric  
atso zar bizartsuac tresnac zintzilib,  
gaberdico egazti, zomorrò ta pizti  
sorguiñen ondoren jiraca dabiltz.  
Loroac marrascan, topaca idiaz  
bi putre besotic, mozcorrac biac,  
taruntac, atabel, chistu, charrabet  
chimu talde batec jotzen dituzte  
ta denean erdian, Aquer aundia  
guciyen nagusi pamparroí dabill”.



#### 4.- LOPE MARTINEZ ISASTIREN TXOSTENA



**Lope Martinez Isasti.  
Sorginen aurkako  
txostenaren egilea.  
(1618)**

Sarritan aipatu izan dugu XVII. mendeko lezoar hau gure herriko historiaren arloan, berari zor baitiogu "Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipuzcoa" izeko liburu mardul bezain aberatsa. Eta aipaturiko liburu hontan egindako lana goratzekoa den arren, ez da horrelakoa izan 1.618. urtean dataturik dagoen "Relación que hizo el doctor don Lope de Ysasti presbítero y beneficiado de Lezo, que es en Guipuzcoa, acerca de las maléficas de Cantabria por mandato del señor inquisidor Campofrío de Madrid" izeneko txosten memeloan burututakoa.

Bertan, inolako kutsu historikorik gabe eta errealitate-ari muzin eginez, bere belarrietara iritsitako esandako eta kontuen erlazioa egiten du. Ez du ematen garaiko agente erlijiosoek jaramon haundirik egin ziotenik. Txostena guztiz txepel eta erridikulua da, eta egilearen integrismo erlijiosoaren berri garbia ematen digu. Bai, txosten honetan, gure Lope Isastik behin eta berriro eskatzen baitu Inkisizioaren etorrera, garai bateko eskarmentuak eman ditzan. Bere ustez, Gipuzkoa galzorian zegoen, sorgin sinismenak zirela eta, eta hori ekiditeko, inkisidoreen lana guztiz beharrezkotzat jotzen zuen gipuzkoarren arimak ez galtzearren.

Sorginei leporatzen die Kalagorriako inkisidorea eta Adriano VI. Aita Santuaren kapi-laua zen German Ugarteren heriotza -Lezoko parrokian lurperatu zena-, eta baita Okendo almirantearen flotaren hondamendia ere, beraren ustez, sorginek ekaitza sorraz baitzuten. Ikus dezagun zer esaten digu Isastik bere txostenean sorginkerietan omen zebilen Lezoko mutil bati buruz:

*"El un muchacho que era muy agudo hijo bastardo de un hombre noble y rico que se crió en una casería de Lezo entre caseros navarros y le traían a escuela del lugar del Pasaje, digo que la dicha Marichuloco lo llevó un día al campo del cabrón de la sierra que está cerca del dicho lugar, diciéndole con halagos que fuese con ella que tomarían muchos placeres, y dándole nueces le llevó de la mano, y lo presentó al diablo que estaba en figura de un cabrón grande, al cual besó debajo de la cola y ella habló alguna cosa con el dicho cabrón en secreto, y luego le volvió al camino. Después venía la dicha Marichuloco por este muchacho cada noche y lo llevaba consigo desde la cama en camisa y le ponía entre otros muchachos con una vara blanca en la mano como los otros guardando los sapos que andaban delante y los tenía así hasta cerca del alba, y a él volvía a su casa a cuestras sin sentirlo nadie. Dijo que una noche estando él presente llegó de repente poco antes del alba una mujer hermosa y bien ataviada que venía poco a*



poco adonde estaban los niños y viéndola las otras comenzaron a maldecir de ella, Nora mala venga la pechilinguesa y preguntado por él quién era aquélla, respondieron que Nuestra Señora, y ella llegando a los niños dijo cómo os traen a este lugar engañoso. Veníos conmigo que os volveré a vuestras casas y los llevó sobre los hombros”.

“decía este muchacho que había grande multitud de hombres y mujeres que todos andaban enmascarados, y no los podían conocer sino a la que los llevó, y veían cómo andaban bailando y holgando y se alumbraban con velas de pez. Sabido por su padre le azotó bravamente y le dio reliquias y remedios por medio de los frailes, y como murió presto la dicha Marichuloco quedó libre de aquel mal y decía que el diablo andaba siempre acechando lo que él contaba y así lo decía con gran miedo porque no le castigase; y andaban las brujas en aquel aquelarre vestidas al uso de las gitanas, los mantos debajo del sobaco, y bailaban al son de un pandero de mal son”.

Bigarren mutil baten ahoan beste honako testigantza ipintzen du:

“En cierto lugar de Guipúzcoa parecieron ahora doce años dos sortijas de plata la una blanca y la otra dorada llanas, la una con el nombre de Belcebú escrito por la parte de dentro entre cruces, y había fama que quitaba las calenturas y se dio noticia al comisario de aquel lugar y se hizo cargo a la persona que lo traía y respondió que lo compró de un mercero por dos ducados y lo abrasó el dicho comisario en un horno ardiente: y aún es viva aquella persona que anda hecha una sanctimonia. El otro trajo otra mujer a bendecirlo en el altar del santo crucifijo de Lezo y el sacerdote que estaba escarmentado



“Bloks Bergs Werrichtungs” kobrez egindako akelarrei buruzko grabau alemaniarra. (1668)



-Zurez egindako grabatua.  
Guazzo- "Compendium  
maleficarum" (1609)  
"Sorgin, azti eta deabruen  
dantza".



con el otro, lo vio primero y halló que tenía escrito por la parte de dentro entre cruces, Satanás, y se la devolvió sin bendecir reprendiéndola de su atrevimiento. Diose parte al comisario de su lugar y respondió que haría su oficio alabando al sacerdote de su buena diligencia".

Eta beste testigantza baten barruan honako aipamena ekartzen digu:

"Está denunciada esta moza al comisario y dado parte a los inquisidores de Logroño y en casa de este muchacho todas sus hermanas están enfermas y tullidas, con propósito de ir al santo crucifijo de Lezo por remedio porque los médicos juzgan que están malos de maleficio. Al muchacho se han dado Agnus Dei y reliquias y está bien confesado y hay esperanzas que quedará remediado".

Ikusten dugunez, Lezoko gurutzeak sendatzen omen zituen holako aztikerietan ibiltzen zirenean arima galduak, edo behintzat honela kontatzen digu Isasti doktoreak. Dena den, barkamena ez zitzaion nahikoa iruditzen, bere txostenean behin eta berriro su garbitzailearen aldekoa agertzen baitzaigu, eta De Lancre asasinoak Lapurdin egindakoa eredu gisa harturik, Gipuzkoan antzeko eskarmentu haundia egin dadin eskatzen baitu. Isasti historia kontuetan jakintsu eta jantzia zen, baina justizian eta zuzenbidean itsu samarra. Alajainkoa!

**Joseba Aurkenerena Barandiaran**



### Isastiren txostenari dagozkion iturriak:

- 1.- "Relación que hizo el doctor don Lope de Ysasti, presbítero y beneficiado de Lezo, que es en Guipúzcoa, acerca de las maléficas de Cantabria por mandato del señor inquisidor Campofrío de Madrid" (1.618)  
Madrileko Liburutegi Nazionala  
eskuidatzien saileko 2.031. liburukia  
(133-136 orr.)
- 2.- Julio Caro Barojaren transkripzioa  
Eusko Folklore-ren urtekaria XIII.  
(Gasteiz), 1.933
- 3.- JULIO CARO BAROJA: "*Brujería Vasca/Estudios Vascos V*"  
"La memoria del doctor Lope Martinez de Isasti"  
VIII. kapitulua  
243-261 orr.  
Txertoa argitaletxea  
(Donostia), 1985

